



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

MEDIKUNTZA
ETA ERIZAINNTZA
FAKULTATEA

FACULTAD
DE MEDICINA
Y ENFERMERÍA

MEDIKUNTZA ETA ERIZAINNTZA FAKULTATEA

Erizaintza / Fisioterapia /
Medikuntza / Odontologia

www.ehu.eus

Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea



Erizaintza_6. or. / Fisioterapia_8. or. /
Medikuntza_10. or. / Odontologia_12. or.

Osasuna, etorkizunaren erronka handia

Terapia berrien garapena, gaixotasunen sendabidea, pazienteentzako tratamendu pertsonalizatuak, interbentzio ez hain inbaditzaileak, osasun baliabideen kudeaketa eraginkorra... Gure osasun sistema munduko erreferente bat da, eta sistema aurreratu eta berritzaile horretan lan egiteko profesionalak prestatzea, berriz, gure erronka handia da. Horretarako kalitatezko irakaskuntza bat eskaintzen dugu, sektoreko profesionalen eskutik, eta, graduetako gaitasunak eskuratzen laguntzeko, eskolak talde txikitik eta metodologia aktiboen bidez ematen ditugu.



FAKULTATEA ZENBAKITAN

4
gradu

+680
plaza mugikortasun
programetan

7
master

+2.800
plaza praktiketarako

8
berezko
titulu

+1.300
irakasle

8
doktorego
programa



Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea

Leioa-Erandio Eremua (Erizaintza,
Fisioterapia, Medikuntza eta Odontologia)
Sarriena auzoa, z/g. 48940 Leioa

Donostiako Erizaintza Atala
Dr. J. Beguiristain pasalekua, 105.
20014 Donostia

[www.ehu.eu/eu/web/
medikuntza-erizaintza-fakultatea](http://www.ehu.eu/eu/web/medikuntza-erizaintza-fakultatea)

946 012 775 / 5635
secretaria.fme@ehu.eu

943 017 310 / 7358
secretariadonostia.fme@ehu.eu

 [@upvehu](https://twitter.com/upvehu)
 [@upvehu](https://www.facebook.com/upvehu)
 [@upvehu_gara](https://www.instagram.com/upvehu_gara)
 [UPV/EHU](https://www.linkedin.com/company/upvehu)
 [UPV/EHU](https://www.youtube.com/channel/UC...)
 [UPV/EHU](https://vimeo.com/upvehu)

GURE AZPIEGITURAK

Irakaskuntzarako guneak:

- Erabilera anitzeko gelak
- Informatika gelak
- Laborategiak
- Simulazio aretoak
- Ebakuntza gela esperimentalak
- Ikus-entzunezko eta informatikako ekipamendua
- Ospitale birtuala, irakasguneetan

Ikasleek beren kabuz erabiltzeko guneak:

- Erabilera librerako ordenagailuak
- Dokumentuak inprimatzeko sistema (SarePrint)
- Jantokiak

Beste gune batzuk:

- Ekitaldi Aretoa
- Anfiteatroak
- Gradu Aretoa



Erronka praktikoei eta intelektualei aurre egiten ikasiko duzu.



MUGIKORTASUN PROGRAMAK

- **SICUE**
Espainiako unibertsitateak
- **ERASMUS +**
Europako unibertsitateak
- **Latinoamerika eta Beste Norako Batzuk**

- 2. mailatik aurrera
- Lauhilekoa edo ikasturte osoa



[Hemen](#) aurkituko duzu ikastegi honetako mugikortasun-programen informazio guztia.


IRAKASKUNTZA ELEANIZTUNA

Fisioterapia eta Erizaintza euskaraz egin daitezke osorik.

Medikuntzan eta Odontologian, berriz, euskaraz eskaintzen dira lehen mailako irakasgai guztiak eta azken mailako irakasgai ugari.

Gradu Amaierako Lana: euskaraz eta gaztelaniaz Irakasgai asko ingelesez ematen dira maila guztietan.

NON EMATEN DIRA GURE GRADUAK?



UNIBERTSITATEKO PRAKTIKAK

- Praktikak laborategietan eta zentro sanitario eta soziosanitarioetan, 4 graduetan
- Medikuntzako gradua: azken 3 ikasturteetan 5 unibertsitate ospitaleetako irakasguneetan egin dira, hau da: Basurtu, Gurutzeta, Donostia, Galdako eta Araba
- Odontologiako gradua: praktika klinikoak, Leioako Odontologia Klinikako pazienteekin

IRAKASKUNTZAREN ANTOLAKUNTZA

Graduetako irakaskuntza ematen da: Leioako Fakultatean, Donostiako Erizaintza atalean, eta unibertsitate ospitaleetako (Basurtu, Gurutzeta, Donostia, Araba eta Galdakao) irakasguneetan, non Medikuntzako 4., 5. eta 6. mailako ikasturte klinikoak ikasten baitira.

	<u>Bizkaia</u>	<u>Gipuzkoa</u>	<u>Araba</u>
 Ikasleak	+22.000	+10.000	+7.000
 Ikastegiak	9	9	7
 Bibliotekak	6	3	2
<u>Campus guztiek dituzte:</u>			
 Emplegu Gunea	 Kiroldegi bat Itunpeko kirol zentroak	 Kultura, musika eta arte jarduerak	
 Unibertsitate egoitza bat Ostatu zerbitzua: ostatua aurkitzen lagunduko dizugu	 Ikasi hizkuntzak Hizkuntza egiaztagirak		

Bizi Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako Campusak!



ERIZAINZAKO GRADUA



Jakintza adarra: Osasun Zientziak

Erizaintza osasun zientzien arloan araututako lanbide bat dugu, Europako gidalerro batek araututakoa, eta haren helburua da herritarrei kalitateko zaintzak eskaintzea hala osasuna sustatzeko eta gaixotasuna prebenitzeko nola prozesu patologikoetan sendatzeko edo errehabilitatzeko.

Erizaintzako Graduan, orotariko erizaintzako profesionala izateko prestatuko zara, eta zientzia eta giza prestakuntza bikaina jasoko duzu. Hala, pertsona osasuntsuen nahiz gaixoen zainketa eta osasun beharrak identifikatzeko, baloratzeko, planifikatzeko, eta ebaluatzeko gaitasuna eskuratuko duzu, prestakuntza teoriko eta praktikoko trinko baten bidez.

Praktikak dira titulazio horretako ardatz nagusia (%40). Lehenengo mailatik jarriko zara harremanetan aurrerago izango duzun ogibidearekin eta eremu akademikoan erdietsitako ezagutza teoriko-praktikoak erabiliko dituzu.

Erizaintzako Gradua BAEE (Barneko Erizain Egoiliar) probak egiteko aukera emango dizu, erizain titulua lortu ahal izateko espezializazio hauetan: Erizaintza Obstetrikoko-Ginekologikoa (Emagina), Buru Osasuneko Erizaintza, Erizaintza Geriatrikoa, Lanaren Erizaintza, Zainketa Mediko-Kirurgikoen Erizaintza, Familia eta Komunitate Erizaintza, eta Erizaintza Pediatrikoa.

Gradu hau Donostian eta Leioan ematen da.

Hemen aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.



[Bizkaia](#)



[Gipuzkoa](#)

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Pertsonen osasuna eta ongizatea babesteko; erizaintzaren oinarriak eta printzipio teorikoak eta metodologikoak ezagutzeko eta aplikatzeko; genero, talde edo komunitatearen araberako pertsonaren portaera interaktiboa ulertzeko; zure pazienteekin modu eraginkorrean komunikatzeko; erizaintzako zaintzak planifikatzeko eta emateko; bizi estilo osasungarriak sustatzeko; eta, erizaintzaren kode etikoa eta deontologikoa ezagutzeko.

Irteera profesionalak:

- Ospitale publikoak eta pribatuak.
- Lehen arretako eta arreta espezializatuko zentroak.
- Ospitalez kanpoko larrialdi zerbitzuak.
- Zentro sozio-sanitarioak.
- Laneko osasun zerbitzuak, eskola osasuna, osasun mentala...
- Irakaskuntza eta ikerketa zentroak.
- Erizaintza zerbitzuen antolakuntza eta kudeaketa.
- Autoenplegua.

Pertsona motibatua bazara eta pertsonen osasuna zaindu nahi baduzu, analisi, komunikazio eta kritikarako gaitasuna baduzu, enpatia baduzu eta, gainera, aldaketara egokitzen bazara eta dibertsitatea errespetatzen baduzu, Erizaintzako Gradua da zure aukera onena.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko 48 kreditu + nahitaezko 12 kreditu)

1. lauhilekoa

- Giza Gorputzaren Egitura eta Funtzioa I
- Giza Gorputzaren Egitura eta Funtzioa II
- Informazio Sistemak eta Datuen Analisia
- Osasun Publikoa
- Osasun Zainketei Aplikatutako Zientzia Psikosozialak

2. lauhilekoa

- Antropologia, Etika eta Legeria
- Erizaintzaren Oinarri Teorikoak
- Giza Gorputzaren Egitura eta Funtzioa III
- Patologia: Oinarrizko Zainketak
- Zaintzarako Praktiketako Hastapena

BIGARREN MAILA 60 kreditu (oinarrizko 12 kreditu + nahitaezko 48 kreditu)

1. lauhilekoa

- Bizi Zikloaren Erizaintza I
- Erizaintza Klinikoa I
- Erizaintzaren Oinarri Metodologikoak
- Farmakologia
- Harremanak eta Komunikazioa Zainketetan

2. lauhilekoa

- Bizi Zikloaren Erizaintza II
- Erizaintza Klinikoa II
- Komunitate Erizaintza
- Practicum I

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 42 kreditu + hautazko 18 kreditu)

1. lauhilekoa

- Erizaintza Klinikoa III
- Erizaintza Klinikoa IV
- Zerbitzuen Kudeaketa eta Kalitatea
- Practicum II

2. lauhilekoa

- Practicum III

Hautazkoak 2. lauhilekoa

Ikasleek 18 hautazko kreditu lortu beharko dituzte, eskaintzaren arabera.

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (practicumeko 54 kreditu + Gradu Amaierako Lanaren 6 kreditu)

1. lauhilekoa

- Practicum IV

2. lauhilekoa

- Practicum V

GRADU AMAIERAKO LANA



FISIOTERAPIAKO GRADUA

Jakintza adarra: Osasun Zientziak

Fisioterapia diziplina sanitario bat dugu, defizit funtzional bat duten edo euki dezaketen pertsonak tratatzeko eta moldatzeko metodo multzo bat erabiltzen duena. Azken helburua du autonomia eta bizi kalitatea mantendu edo errekerperatzea baldintza hoberenetan.

Fisioterapiako Graduak gizakiari buruzko ezagutza sakona emango dizu, pertsonak beren osotasun biopsiko-sozialean trata ditzazun. Hiru mailatan jardutera ikasiko duzu: lehen maila (prebentzioa eta osasunaren sustapena), bigarren maila (laguntzeko eta sendatzeko esku hartzea), eta hirugarren maila (prozesu puntual edo kronikoen berreskuratze funtzionala).

Horrez gain, UPV/EHUn, espezializazio gisa, bi aipamen eskaintzen dizkizugu: Fisioterapia, Jarduera Fisikoa eta Kirola eta, bestetik, Fisioterapia Zahartzean eta Ergonomia.

Fisioterapiako graduak, fisioterapeuta gisa lan egiteko ahalbidetzen zaitu.

Besteei laguntzeko bokazioa eta enpatia baduzu, eskuekin trebea bazara, zientzietako oinarrizko prestakuntza baduzu eta pertsonen osasuna eta ongizatea hobetzeko lana gustura egingo bazenu, Fisioterapiako Gradua da zure aukera onena.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Pertsonen morfologia, fisiologia, patologia eta portaera ezagutzeko eta ulertzeko, baita fisioterapia metodoak, prozedurak eta jarduerak ere; fisioterapiako esku hartze planak diseinatzeko; tratamenduen bidez eskuratutako emaitzen bilakaera ebaluatzeko; osasunaren promozio, prebentzio, babeste eta berreskuratze arloetan esku hartzeko; eta, lanbidearen etika eta lege printzipioak jarduera profesionalean txertatzeko.

Irteera profesionalak

Fisioterapiako Gradua egin ondoren, lana egin ahal izango duzu:

- Osasun zentro eta ospitaletan.
- Ikastetxeetan, psikomotrizitate nahasmenduak dituzten haurrekin.
- Kirol klub eta zentroetan.
- Gerontologia zentroetan.
- Zentro sozio-sanitarioetan.
- Fisioterapiako kabinete pribatuetan.
- Lan osasuneko zentroetan.
- Irakaskuntzan eta ikerketan.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

IKASKETA PLANA

LEHEN MAILA 60 kreditu (oinarrizko 48 kreditu + nahitaezko 12 kreditu)

1. lauhilekoa

- Anatomia I
- Fisioterapiaren Oinarri Biokimikoak, Zelularrak eta Tisularrak
- Fisioterapiaren Oinarriak
- Osasun Publikoa Fisioterapian

2. lauhilekoa

- Anatomia II
- Balorazio Klinikoa Fisioterapian I
- Fisioterapiari Aplikatutako Biomekanika eta Biofisika
- Fisioterapiari Aplikatutako Psikosoziologia
- Giza Fisiologia

BIGARREN MAILA 60 kreditu (oinarrizko 12 kreditu + nahitaezko 48 kreditu)

1. lauhilekoa

- Biomekanika Klinikoa
- Fisioterapiako Legeria eta Deontologia
- Fisioterapian esku hartzeko prozedura orokorrak I
- Patologia orokorra fisioterapian
- Zinesiterapia

2. lauhilekoa

- Afekzio Mediko-Kirurgikoak I
- Balorazio Klinikoa Fisioterapian II
- Farmakologia Fisioterapian
- Fisioterapian Esku Hartzeko Metodo Espezifikokoak I
- Fisioterapian Esku Hartzeko Prozedura Orokorrak II

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 42 kreditu + hautazko 18 kreditu)

1. lauhilekoa

- Afekzio Mediko-Kirurgikoak II
- Fisioterapia Espezialitate Klinikoetan I
- Fisioterapian Esku Hartzeko Metodo Espezifikokoak II

2. lauhilekoa

- Fisioterapia espezialitate klinikoetan II
- Fisioterapian esku hartzeko metodo espezifikokoak III

Hautazkoak

- Euskararen Arauak eta Erabilerak
- Kirolaren Oinarri Medikoak eta Fisiologikoak (1A)
- Zahartzearen Oinarri Fisiologikoak (2A)

Hautazkoak

- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Fisioterapia (1A)
- Ergonomia (1A) (2A)
- Fisioterapia eta Laneko Arriskuen Prebentzioa (2A)

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (practicumeko 42 kreditu + hautazko 12 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 6 kreditu)

Urtekoa

- Gidaritzapeko Praktiak (PRACTICUM)

1. lauhilekoa

Hautazkoak

- Eliteko Kirola eta Fisioterapia (1A)
- Fisioterapia Geriatrikoa (2A)

2. lauhilekoa

Hautazkoak

- Komunikazioa Euskaraz: Osasun Arloa
- Suspertze Geriatrikoa (1A)(2A)

GRADU AMAIERAKO LANA

AIPAMENAK

- Fisioterapia, Jarduera Fisikoa eta Kirola (1A)
- Fisioterapia Zahartzean eta Ergonomian (2A)

MEDIKUNTZAKO GRADUA

Jakintza adarra: Osasun Zientziak

Medikuntzak bizitza, osasuna, gaixotasunak eta heriotza ikertzen ditu, eta prebentzioa, diagnostikoak eta tratamenduak ematen ditu, pertsonen osasuna eta bizi kalitatea hobetzeko.

Medikuntzako Graduak gaitasuna emango dizu orotariko medikuntzan jarduteko eta gero graduondoko prestakuntza klinikoa nahiz ikerketakoa jasotzeko.

UPV/EHUk, gainera, irakastune ditu Basurtu, Gurutzeta, Galdakao, Araba eta Donostiako unibertsitate ospitaleetan, eta haietan egingo dituzu azkeneko hiru mailak. Medikuntzako Graduaren sei mailak amaitzean, medikuntzako gradudun titulua eskuratuko duzu, master mailarekin, eta doktoregoa egiten hasteko moduan egongo zara. Bestalde, BAME (barruko mediku egoiliar) azterketa eginda, espezialitate mediko bateko prestakuntza jaso ahalko duzu lan merkatura sartu baino lehen.

Gradu honetako ikasketen kalitatea egiaztatuz dago, eta horren froga ditugu UPV/EHUko ikasleek BAME azterketetan lortzen dituzten emaitzak.

MEDIKUNTZA GRADUA

Medikuntzako Gradua lerro hauetako batean egin ahalko du:

- Gaztelania
- Euskara: B2 mailaren baliokidea den tarteko maila egiaztatu beharko da behin betiko izen ematea berrestean.

Hemen aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.



[Medikuntza](#)



[Medikuntza \(euskara\)](#)

Zerbitzu bokazioa duen pertsona solidario eta enpatikoa bazara, osasunari lotutako ororen zale porrokatua bazara, zientzietan oinarrituko prestakuntza baduzu eta pertsonen bizi kalitatea eta ongizatea hobetzen lagundu nahi baduzu, Medikuntzako Gradua da zure gaitasun guztiak garatzeko titulu egokia.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Giza gorputzaren egitura eta funtzio normala ezagutzeko, baita osasun egoera eta gaixotasunaren garapena zehazten dituzten arrisku faktorek eta eragileak ere; informazio iturri klinikoak eta biomedikoak erabiltzen jakiteko eta kritikoki baloratzeko; diagnostikoa, pronostikoa eta tratamendua ezartzeko; hasierako diagnostikoa egin, eta estrategia arrazoitu bat ezartzeko; pazienteekin argi eta modu eraginkorrean komunikatzeko; eta, lanbidearen printzipio etikoak eta lege erantzukizunak ezagutzeko.

Irteera profesionalak:

Medikuntzako Gradua egin ondoren, lana egin ahal izango duzu:

- Ospitaleetan, osasun zentroetan, anbulatorioetan, kliniketan, geriatrikoetan, eta abar, publikoak nahiz pribatuak izan.
- Enpresetan, mutualitateetan eta aseguru konpainietan.
- Kirol arloan.
- Auzitegi medikuntzan.
- Irakaskuntzan eta Ikerketan.
- Nazioarteko lankidetzan.
- Aholkularitza medikoan.
- Osasun administrazioan.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko 40 kreditu + nahitaezko 18 kreditu)

1. lauhilekoa

- Dokumentazioa, Medikuntzaren Historia, Teoria eta Metodoa
- Giza Anatomia I
- Oinarrizko Biokimika
- Psikologia
- Zelulen Biologia

2. lauhilekoa

- Bioestatistika
- Biokimika Medikoa
- Fisiologia
- Garapenaren Biologia eta Genetika
- Giza Anatomia II

BIGARREN MAILA 60 kreditu (oinarrizko 12 kreditu + nahitaezko 42 kreditu + hautazko 6 kreditu)

1. lauhilekoa

- Giza Anatomia III
- Fisiologia Medikoa I
- Oinarrizko Histologia Medikoa
- Ikerketa Biomedikorako Sarrera

Hautazkoak

- Enbriologia Medikoa
- Euskararen Arauak eta Erabilerak

2. lauhilekoa

- Giza Anatomia IV
- Fisiologia Medikoa II
- Histologia Mediko Berezia
- Mikrobiologia eta Immunologia Medikoak

Hautazkoak

- Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Medikuntza eta Fisiologia

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (oinarrizko 6 kreditu + nahitaezko 42 kreditu + hautazko 12 kreditu)

Urtekoa

- Ikerketa Proiektua
- Kirurgiaren Oinarriak
- Patologia Orokorra

1. lauhilekoa

- Farmakologia Medikoaren Oinarriak
- Mikrobiologia Klinikoa eta Infekzioa

Hautazkoak

- Komunikazioa Euskaraz: Osasun Arloa
- Droga Mendekotasuna
- Genetika Medikoa
- Txertoak

2. lauhilekoa

- Anatomia Patologiko Orokorra
- Etika Medikoa, Komunikazioa eta Harreman Klinikoa

Hautazkoak

- Zainketa Perioperatorioak

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 60 kreditu)

Urtekoa

- Kirurgia I
- Oftalmologia
- Otorrinolaringologia
- Patologia eta Klinika Medikoa I
- Psikiatria

1. lauhilekoa

- Anatomia Patologiko Berezia
- Dermatologia

2. lauhilekoa

- Erradiologia eta Medikuntza Fisikoa I

BOSGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 60 kreditu)

Urtekoa

- Kirurgia II
- Lege eta Auzitegi Medikuntza
- Obstetrizia eta Ginekologia
- Patologia eta Klinika Medikoa II
- Pediatria

1. lauhilekoa

- Erradiologia eta Medikuntza Fisikoa II

2. lauhilekoa

- Farmakologia Mediko Aplikatua
- Prebentzio Medikuntza, Osasun Publikoa eta Komunitate Osasuna

SEIGARREN MAILA 60 kreditu

- Gidaritzapeko Praktika Txandakatuak (54 kreditu; ebaluazioak EKOE* barne biltzen du)
- **GRADU AMAIERAKO LANA** (6 kreditu)

*EKOE (Ebaluazio Kliniko Objektibo Egituratua): Proba hau modu presentzian edo birtualean garatzen da, egoera edo simulazio klinikoen bidez, gaitasun medikoak eskuratzen direla bermatzeko.

ODONTOLOGIAKO GRADUA



Jakintza adarra: Osasun Zientziak

Aho osasuntsu batek gorputz eta ohitura osasuntsuak islatzen ditu; hori dela eta, Odontologia oinarritzko medikuntza diziplina bat da, pertsonen ongizatea mantentzeko eta bizi kalitatea hobetzeko.

Odontologiako Graduan ikasiko duzu nola egiten den historia kliniko oso bat eta odontologiako diagnostiko bat, eta nola diseinatzen eta aplikatzen den terapia egoki bat. Horrez gainera, helduen nahiz haurren ahoko gaixotasunak prebenitzen eta aho-hortzetako osasuna bultzatzen ikasiko duzu. Hortzetan, masailetan, ahoan eta ahoko ehunetan izaten diren aho-hortzeko min orokorrak aztertuko dituzu, eta ikasiko duzu, besteak beste, txantxarra kentzen, endodontziak, ortodontziak eta hartz protesiak egiten, etab.

Gainera, UPV/EHUn, Odontologia Klinika bat dugu, non nahitaezko praktikak egin ahal izango dituzun irakasleen gidaritzapean eta benetako kasu klinikoak tratatuko dituzun.

Odontologiako Graduaren bost mailak amaitzean, Odontologiako gradudun titulu eskuratuko duzu, master mailarekin, eta doktoregoa egiten hasteko moduan egongo zara.

Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Odontologiaren oinarrian dauden oinarritzko zientzia biomedikoak ulertzeko; dentistaren funtsezko elementuak ezagutzeko; gaixotasunaren prozesu orokorreari antzemateko; aho azterketa oso bat egiteko; diagnostikoa, pronostikoa eta plangintza terapeutiko egokia ezartzeko; ahoko gaixotasunei aurre egiteko prebentzio eta babes neurrien inguruan dentistak duen eginkizuna ezagutzeko; eta, informazio iturri klinikoak eta biomedikoak erabiltzen jakiteko.

Odontologiako Graduatu tituluak Goi Mailako Hezkuntzarako Kualifikazioen Espainiako Esparruko (MECES) 3. maila (Masterra) aitortua du eta zuzenean doktoregoa egiteko aukera ematen du.

Irteera profesionalak:

Zure kontsulta odontologikoa ireki ahal izango duzu.

Eta odontologiaren profesionalak behar dira ere:

- Osasun publikoan eta pribatuan
- Irakaskuntzan
- Ikerketan



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

Pertsonen bizi kalitatea eta osasuna hobetzen laguntzeko bokazioa duen pertsona bazara, enpatia baduzu, tresnak manipulatzeko trebea bazara eta osasun zientzien arloa interesatzen bazaizu, Odontologiako Gradua da zure aukera onena.

IKASKETA PLANA

LEHENENGO MAILA 60 kreditu (oinarrizko 42 kreditu + nahitaezko 18 kreditu)

Urtekoa

- Ergonomia eta Odontologia Klinikarako eta Laborategirako Sarrera
- Fisiologia
- Mikrobiologia eta Immunologia

1. lauhilekoa

- Anatomia I
- Biokimika
- Zelulen Biologia

2. lauhilekoa

- Anatomia II
 - Epidemiologia eta Osasun Publikoa
 - Giza Histologia
-

BIGARREN MAILA 60 kreditu (Nahitaezko 54 kreditu + hautazko 6 kreditu)

Urtekoa

- Helduen eta Haurren Patologia Medikoa
- Hartz Protesia I
- Patologia Kirurgikoa
- Prebentzio eta Komunitate Odontologia

1. lauhilekoa

- Erradiologia eta Medikuntza Fisikoa
- Psikologia eta Komunikazioa

2. lauhilekoa

- Aho Patologia eta Medikuntza I

Hautazkoak

- Euskararen Arauak eta Erabilerak
 - Odontologoaren Lanbidea: Jarduna eta Kudeaketa. Odontologiaren Historia
-

HIRUGARREN MAILA 60 kreditu (Nahitaezko 60 kreditu)

Urtekoa

- Hartz Patologia eta Terapeutika I
- Hartz Protesia II

1. lauhilekoa

- Aho Kirurgia I
- Farmakologia Orokorra eta Klinikoa
- Odontologiako Biomaterialak

2. lauhilekoa

- Aho Kirurgia II
 - Lege eta Auzitegi Odontologia
 - Periodontzia I
-

LAUGARREN MAILA 60 kreditu (nahitaezko 54 kreditu + hautazko 6 kreditu)

Urtekoa

- Aho Patologia eta Medikuntza II
- Hartz Patologia eta Terapeutika II
- Hartz Protesia III
- Odontopediatria

1. lauhilekoa

- Periodontzia II

2. lauhilekoa

- Ortodontzia I

Hautazkoak

- Ahoko eta Aurpegiko Minerako Sarrera
 - Komunikazioa Euskaraz: Osasun Arloa
 - Patologia Sistemikoaren Ondorioak Ahoan
-

BOSGARREN IKASTURTEA 60 kreditu (nahitaezko 48 kreditu + hautazko 6 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 6 kreditu)

Urtekoa

- Ortodontzia II
- Praktika Integratuak: Haurrak
- Praktika Integratuak: Helduak I
- Praktika Integratuak: Helduak II

1. lauhilekoa

- Ahoko eta Aurpegiko Mina eta Tenporalaren eta Barailaren arteko Artikulazioaren Arazoak

Hautazkoak

- Aurpegi-Masailetakoa Kirurgia

2. lauhilekoa

- Farmakologia Aplikatua eta Larrialdiak Odontologian

Hautazkoak

- Inplantologia
- Terapia Kirurgiko Birsortzailea Periodontzian

GRADU AMAIERAKO LANA



UPV/EHUren GRADUONDOKOEN ESKAINZA

Zure gradu-ikasketak amaitu ondoren, zure prestakuntza osatu ahal izango duzu graduondoko batekin. UPV/EHUK graduondoko 150 programa baino gehiago eskaintzen ditu zure etorkizun profesionala garatu nahi duzun alorrean espezializatu zaitez.



Gure unibertsitateko masterrak eta berezko tituluak hemen kontsulta ditzakezu:
www.ehu.es/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak

Eskerrik asko Euskal Herriko Unibertsitatea aukeratzeagatik. Itxaroten dizugu.

Liburuxka hau informazioa emateko baino ez da.
Azken eguneraketa: 2022ko abendua.